Bertaratutako kideak:

**D.ª Sonia Rivas Borrell.**
Univertsitateen ordezkaria. Nafarroako Unibertsitatea
**D.ª Mari Luz Sanz Escudero**
Nafarroan desgaitasuna duten Pertsonen ordezkaria/ CERMIN
**D. Pedro Rascón Macías**
Aitortutako ospea duen pertsonalitatea
**D. Pablo Arriazu Amat**
Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria
**D. Gil Sevillano González**
Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria
**D. Josu Repáraz Leiza**
Nafarroako ikastetxe pribatuetako entitate titularren ordezkaria-Nafarroako Ikastolen Elkartea
**Dª. María Rodríguez Moran.**
Ikasleen Gurasoen Elkarteen Federazioen ordezkaria. HERRIKOA
**D.ª Pilar López Valderrama.**
Ikastetxe Pribatuetako Irakasleen ordezkaria FSIE-SEPNA
**Dº. Begoña Unzué Vela.**
Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria
**D. Ignacio Mª Iraizoz Zubeldía**
Nafarroako Ikastetxe pribatuetako entitate titularren ordezkaria/ANEG-FERE
**Dª Maite Pellejero Olcoz.**
Ikastetxe pribatu itunduetako zuzendarien ordezkaria.
**Dª. Arantxa Ruiz Vidorreta**
Ikastetxe Publikoetako Irakasleen ordezkaria STEE-EILAS
**D. Santiago Álvarez Folgueras**
Ikasleen Gurasoen Elkarteen Federazioen ordezkaria HERRIKOA
**Dª Mª Soledad Garjón López**
Ikastetxe Publikoetako Irakasleen ordezkaria AFAPNA
**D. Mikel Rodríguez Aguirreche.**
Empresari elkarteen ordezkaria.
**Doña María Teresa Módol Betriu**
Ikasleen Gurasoen Elkarteen. CONCAPA
**D. Tomás Rodríguez Garraza**
Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria
**Dª. Arantza Zuriarrain Iñiguez.**
Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

Iruñean, 2021eko irailaren 15ean, 17: 00etan, Nafarroak
bildu da, Manuel Martín Iglesias jauna buru dela, alboan a
eta Antonio Iriarte Moncayola jauna, idazkari gisa, Nafar
Hezkuntzako Batzorde Nagusiaren Osoko Bilkura, honako

1. Hezkuntzako kontseilariaren agurra.
2. Aurreko bilkurako akta berrikustea eta, hala badagok
3. Lehendakariaren informazio orokorra.
4. 2021/2022 ikasturterako aurrekontuen aurreproiektua
5. 2021/2022 ikasturterako lan-planaren zirriborroa.
6. 2021/2022 ikasturteko lantaldeak.
7. 18/2021 Irizpena. Hezkidetza Plana.
8. Eskaerak eta galderak.

**D. Germán Chocarro Garbayo.**
Ikasleen Gurasoen Elkarteen Federazioen ordezkaria. BRITILA.
**Dº Iosu Mena Sarasola**
Ikastetxe publikoetako zuzendarien ordezkaria.
**Dª. Marta Díez Napal**
Ikasleen Gurasoen Elkarteen Federazioen ordezkaria SORTZEN
**Dña. Patricia Fanlo Mateo**
Nafarroako Parlamentuaren ordezkaria (I-E)
**Dª. Esther Lacasta Pérez-Ilzarbe**
Toki entitateen ordezkaria.
**D. José Jorge Lanchas Rivero**
Nafarroako Ikastetxe pribatuetako entitate titularren ordezkaria/ANEG-FERE.
**Dª Lourdes Larunbe Arretxe**
Ikastetxeetako Administrazioko eta Zerbitzuetako langileen ordezkaria
**D.ª Carmela Muñoz Ventura**
Ikastetxe Pribatuetako Ikarasleen ordezkaria FETE-UGT

Ezin etorria adierazi dutenak:
**Dª Cristina Bayona Saez**
Univertsitateen ordezkaria UPNA
**D. Jabi Arakama Urtiaga**
Nafarroako Parlamentuaren ordezkaria (Geroa Bai).

Ez dira bertaratu:

**D. Mikel Lizaso Odriozola**
Ikastetxe Publikoetako Irakasleen ordezkaria LAB
**D.ª Mª José Anaut Couso**
Sindikatuen ordezkaria/UGT
**D. Mario Fabo Caleo**
Toki entitateen ordezkaria
**Dª Ainara González Rubio.**
Berdintasunaren alde lan egiten duten elkarteen ordezkaria

**1. Hezkuntzako kontseilariaren agurra**

Hezkuntzako kontseilariak hartu du hitza, eta eskerrak eman dizkie Nafarroako Eskola Kontseiluko kideei bilkura honetan parte hartzeagatik eta aurreko ikasturtean egindako lan bikainagatik.

Hasi den ikasturte berrian, aurreko ikasturtean ezarri ziren indartze-baliabideak finkatzeko helburua finkatu da. Egungo osasun-datuekin, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak egokitzat jo ditu 2021/2022 ikasturterako hezkuntza-planean eskola-jardunaldiari eta eskola-jantokiei buruz hartutako erabakiak

Era berean, adierazi du ikasturte berrirako Hezkidetza Plana izapidetzean Nafarroako Eskola Kontseilutik igarotzea beharrezkoa ez litzatekeen arren, Nafarroako Eskola Kontseiluaren eztabaida eta bozketara aurkeztea erabaki duela.

Hezkuntza Ituna deiturikoaren garapenari dagokionez, bere ustez Nafarroako Eskola Kontseilua da eztabaidari ekin eta horri buruzko adostasuna lortzen saiatu behar duena.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkie eskolatze-araudi berria garatu duten teknikariei, hain gai korapilatsu eta konplexuan egindako lan bikainagatik.

**2. Aurreko bilkurako akta berrikustea eta, hala badagokio, onestea.**

Lehendakariak aurreko bilkurako aktari alegaziorik edo iruzkinik egin behar dioten eskatzen die kideei.

Bertaratutako kideen baiespenez onartu da akta.

**3. Lehendakariaren informazio orokorra.**

Lehendakariak azalpen labur bat eman du Nafarroako Eskola Kontseiluak 2021eko ekainaren 23tik 2021eko irailaren 15era parte hartzen duen ekitaldi eta bileretan izandako parte-hartzeari buruz.

**4. 2021/2022 ikasturterako aurrekontuen aurreproiektua.**

Lehendakariak 2021/2022 ikasturterako Nafarroako Eskola Kontseiluaren aurrekontuaren aurreproiektuari eransten zaizkion datuen berri eman du, eta Osoko Bilkuraren onespena eskatu du.

Nafarroako Eskola Kontseiluaren 2021/2022 ikasturterako aurrekontuen aurreproiektua onartu da, bertaratutako kideen onespenez.

**5. 2021/2022 ikasturterako lan-planaren zirriborroa.**

Lehendakariak Lan Plana osatzen duten atalen berri eman du eta onartzeko eskatu du.

**6. 2021/2022 ikasturteko lantaldeak.**

Presidenteak 1. lantaldean proposatutako aldaketen azalpen informatua ematen hasi zen, eta lantalde bakar batean bateratzea proposatu zuen. Halaber, batzordekideei adierazi die 6. batzordea osatzen duten lantaldeetan izena eman dezatela.

Santiago Alvarezek galdetu du ea bokalak hainbat lantaldetan apuntatu daitezkeen.

Nafarroako Eskola Kontseiluko idazkariak adierazi du, Nafarroako Eskola Kontseiluaren funtzionamendua arautzen duen araudiarekin bat etorriz, batzordekide guztiak komenigarritzat jotzen dituzten lantalde guztietako kide izan daitezkeela eta horietan parte har dezaketela.

German Chocarrok galdetu du zein lantaldetan lantzen den PAI hezkuntza-programa.

Lehendakariak hartu du hitza, eta adierazi du batzordekideei dokumentu bat bidaliko zaiela eztabaidatu beharreko gaiekin, eta orduan erabaki ahal izango dutela zein lantaldetan sartuko diren.

**7. 18/2021 Irizpena. Hezkidetza Plana.**

Lehendakariak hasiera eman dio 18/2021 Irizpenaren testuari aurkeztutako zuzenketen eztabaidari eta bozketari, eta Lantaldeak eta Batzorde Iraunkorrak dagoeneko onartutako zuzenketak onartutzat jotzea proposatu du.

Proposamena onartu da, bertaratutako kideen baiespenez.

Aurkeztutako zuzenketak eztabaidatu eta bozkatu dira, eta emaitza hau izan da:

Zuzenketa zk. Emaitza Botazioa

5 (Eskola katolikoek aurkeztua) Ezetsia: aldeko 9 boto, kontrako 15 boto eta 2 abstentzio.

7 (Iosu Menak aurkeztua) 19 aldeko boto, 0 kontrako boto eta 6 abstentzio

8 (Iosu Menak aurkeztua) 19 aldeko boto, aurkako boto eta 6 abstentzio onartu dira.

20 (Britilak aurkeztua) Ezetsi egin da aldeko boto 1, kontrako 20 boto eta 5 abstentzio.

21 Aldeko boto 1, kontrako 25 eta 0 abstentzio.

Irizpena bozkatzen da, eta onetsi egiten da aldeko 22 botorekin, kontrako 1ekin eta 2 abstentziorekin.

**8. Galde-eskeak.**

Santiago Alvarezek hartu du hitza, eta Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuari argitasuna eskatu dio guraso elkarteek kudeatutako eskolaz kanpoko jarduerak egiteko aukerari buruz, bai eta jarduera horiek egiteko baldintzei buruz ere.

Gil Sevillanok adierazi du hori egiteko baldintzak Hezkuntza Sailak ezarrita dituela.

Mari Luz Sanzek eskatu du osoko bilkuretako gai-zerrendako irizpenei erantsitako dokumentazioa aztertzeko behar besteko aurrerapenarekin eskuratzeko.

German Chocarro jaunak eskaera egin dio Nafarroako Eskola Kontseiluko Batzorde Iraunkorrari, eskola-oporraldian prestakuntza-beka eskatu duten irakasleen lana aitortzeko.

Eta aztergai gehiagorik egon ez denez, lehendakariak Osoko Bilkurara bertaratutako kideen parte-hartzea eskertu du eta saioari amaiera eman dio 19: 00etan, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.